

## Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario,  
Arejita, Adolfo,  
Azkarate, Miren,  
Coyos, Jean-Baptiste,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Larre, Emile,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Salaburu, Pello,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi, eta  
Zabaleta, Patxi.  
Erramun Osa, idazkariordea,  
Joseba Zabaleta, kudeatzailea.

### Ezin etorriak eta ahalak:

Jose Aurelia Arkotxak ahala Miren Lourdes Oñederrari edo Sagrario Ale-

mani; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Beñat Oiharzabalek ahala Jean Haritschelharri; Patxi Salaberrik ahala Andres Iñigori edo Sagrario Alemani; Ibon Sarasolak ahala Pello Salabururi; Xarles Videgainek ahala Jean Haritschelharri; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:05ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Agurra eta hasierako oharra:**  
Euskaltzainburuak, bilduriko euskaltzainak agurtu ondoren, jasoriko ahalak jakinarazi ditu. Era berean ondokoa gogorarazi du:

Osoko batzarraren gaiak 12ak arte tratatuko dira. Ordu horretan batzarra eten egingo da, beheko solairuko areto

nagusian, hilberri txostenak irakurtzeko. Ondoren, berriz ere batzargelara igo eta eguneko gaiekin segituko da.

**1.1. Aurreko batzarraren akta (2011/11/25) onartzea.** J. Haritschelharrek aurreko bileraren akta ez duela jaso adierazi du. Beste zenbait euskaltzainek ere akta heltzeko epean atzerapenak izan dituztela adierazi dute. Tartean posta-zerbitzuetan izandako greba-kontuengatik izan zitekeela azaldu da.

P. Goenagak aurreko aktan bere izena falta dela azaldu du. Eztabaida gertatu da laugarren puntuari buruz, bereziki 4.1.2.an adierazitakoaz. Azkenean, bilera-agirian jaso beharreko testuari buruz adostasuna egon da. Hona hemen: «Kudeatzaileak adierazi ditu neurriak. Neurri horiek dira zuzendaritzak hilaren 24an onetsitakoak eta Osoko bilkurara ekartzen direnak. Euskaltzainburuak argi utzi du ezinbestekoa dela, honen inguruan, erabaki bat hartzea, kontuan izanik, gainera, Euskaltzaindiaren kudeaketan zor ekonomikoak sortuko balira, horien ondorioak Euskaltzaindiaren kideengana ere irits litezkeela.

Osoko bilkurak, dagozkion argibideak jaso ondoren, proposatutako neurriak berretsi ditu –lan harremanen eta aurrekontuen gainekoak barne– eta orobat, horien gainean zuzendaritzak lana egiten segi dezala, eta neurri horiek exekuta ditzala, aldian aldiko bileretarako utziz gerora gerta daitezkeen gastuen zehaztapenak».

**2. Euskaltzaindiaren Hiztegia K-Z letren arteko hitzak aurkeztea.** Aurreko batzarrean aurkezturiko proposamenari eginiko oharrak ekarri ditu A. Sagarnak. Ohar bakarra heldu da, J. L. Lizundiarena, *konfederakunde* hitzari buruzkoa. Hor, *Suitzako konfederakundea*-ren ordez, *Suitzar konfederakundea* jartzea proposatzen du, Euskaltzaindian jada onarturiko 38. arauko adibide berbera ipiniz. Arrazoia duela aitortu zaio eta halaxe onartu da.

A. Sagarnak egindako beste ohar bat ere azaldu da, konposatu kimiko batzuen idazkeraren koherentziarik ezagatik. Horretara, *zianhidriko* eta *klorhidriko* forma aspaldian onartuen bidetik, *sulfhidriko* ere (eta ez *sulfidriko*) idaztea proposatu du, hirurak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* ortografia koherente berberaz eskaintzeko, nomenklaturaren sistematikotasunari eutsiz. Holaxe onartu da.

12:00etan euskaltzain osoen batzarra eten da, J. A. Arana-Martija euskaltzain osoaren, Xabier Gereño eta Vahan Sarkisian euskaltzain ohorezkoen eta Fernando Mendizabal euskaltzain urgazlearen hilberri-txostenen irakurketan eta omenezko ekitaldi-musikaldi publikoan egoteko. Ondoren, 14:20an, osokoien batzarrak jarraitu egin du.

**3. 2012. urterako aurreikuspenen garapena.** Euskaltzaindiaren ekonomia egoera hobetzeko, lorturiko diru-laguntza berriak aipatu ditu euskaltzainburuak. Bestalde, oro har, laguntzetan izandako murriztea dela eta, Euskaltzaindiaren ekonomia orekatzeko, zuzendaritzako partaideek eta ordezkarietzako arduradunek beren esleipenei uko egitea erabaki dutela jakinarazi da.

Kudeatzaileak pantailan erakutsi du diru-sarrerren bilakaera eta diferentziak zertan dauden. Sarrerek eta gastuek azken urteotan izandako gorabeherak ere erakutsi dira. Bestalde, ildo berean, langileekin 4 bilera egin direla azaldu da, akordiorik gabeak.

Aurrezteak egiteko pausoak eta neurriak ere azaldu ditu kudeatzaileak. Gauza bera finantza gastuetan ere. PRECOtik erabakia heldu bitartean langileei orain arteko baldintzak aplikatuko zaizkie. Zuzendaritzak proposatu bezala, PRECOra joatea onartu du Osoko Batzarrak.

Aurrekontuei buruzko iritziak azaldu dituzte euskaltzainek, ekarpenak egiteko tarte bat irekitzea komeniko litzatekeela adieraziz. Hortaz, ekarpenak egiteko epea irekitzea onartu da, eta horren arabera, horiek jaso ondoren, zuzendaritzak erabakiko du zer prozeduraz jokatu.

#### **4. Exonomastika**

##### **4.1. «Saharaz hegoaldeko Afrikako toponimia» araugaia aurkeztu**

J. L. Lizundia euskaltzainak azaldu duenez, zerrenda honetako izen gehienak garai bateko kolonialismoaren eta geroagoko independentzia garaiko toponimoei dagozkie, historian zehar izandako gorabeherekin. Oharrak egiteko epea martxoaren 12ra artekoa da.

##### **4.2. «Ozeaniako toponimia» araugaia aurkeztu.**

Kontinente horretako toponimo nagusien zerrenda aurkeztu du J. L. Lizundiak Exonomastika batzordearen buruak. Honetan ere, oharrak martxoaren 12rako bidali beharko direla gogoratu du.

#### **5. Esku artekoak**

**5.1. Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi»ren heriotza.** Batzarrean Jose Luis Alvarez Enparantza euskaltzain urgazlea hil dela jakinarazi da. Euskaltzaindiaren izenean haren senideei doluminak adieraztea onartu du batzarrak. Hilberri txostenaren kontua hurrengo Osoko batzarrera ekarriko da.

**5.2. «Euskaltzaindiaren alde» Fundazioa.** «Euskaltzaindiaren Alde» izeneko fundazioa otsailean zehar sortuko da Bilbon. Horren behin-behineko partaideak honako hauek izango dira:

- Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak. Bizkaiko Foru Aldundiak ahaleginak egingo ditu, halaber, Eusko Jaurlaritza ere Fundaziora biltzeko.
- Hasiera batekoak: Caja Vital-Vital Kutxa, BBK eta Euskadiko Kutxa.
- Gipuzkoako Kutxak ere Fundazioan parte hartzea erabaki du, 150.253,03 euroekin.

**5.3. Banaturiko liburuak:** Batzarraren amaieran ondoko liburuok banatu dira euskaltzainen artean:

- *Erlea 5.*
- *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545-2011, Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmenez argitara emana.
- *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Jagon 14. Pello Esnalek, – Corpus batzordearekin batera lankidetzan ondua.
- «Diglosiaren inguruan» *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 79-80, Mikel Zalbide euskaltzainak egindako txostena oinarritzat hartzen duena.
- *Gernika-Lumoko toponimia*.

## 6. Azken ordukoak

**6.1. «Euskarari gorazarre» jardunaldiak Madrilen.** Martxoaren bigarren astean (13-14-15) RSBAPEk, Etxepare Institutuak eta Euskaltzaindiak elkarrekin Madrilen antolatu dituzten jardunaldiak direla eta, egitaraua aurkeztuko da heda-bideen aurrean otsailaren amaieran; blogean ere emango da honen berri.

**6.2. Hitzarmen berriak.** Otsailean zehar hiru lankidetzaren hitzarmen berri izenpetuko dira:

Batetik, *Langunerekin* (Hizkuntza Industrien Elkarte Euskal Herrian); bestetik *Fundación Popular de Estudios Vasco*ekin eta, azkenik, *Soziolinguistika Klusterrarekin*.

**6.3. Hitz-ordenari buruzko jardunaldiak eta Ageriko bilkura.** Luis Villasantek Euskararen Ikergunean, Donostian, otsailaren 24an *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa* lana oinarritzat harturik, jardunaldiak eta Ageriko bilkura egingo dira. Honen berri eta egitaraua datozen egunetan bidaliko du idazkariordeak.

**6.4. Hurrengo Osoko bilkura.** Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura aurtengo martxoaren 30ean, goizeko 10:00etan egingo da Gipuzkoako Foru Aldundian, 2011.eko azaroaren 25ean onartu zen urteko egutegiaren arabera.

Batzarra 16:10ean amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an

Jose Antonio Arana Martija (1931-2011), Vahan Sarkisian (1954-2011), Xabier Gereño (1924-2011) eta Fernando Mendizabal (1934-2011) gogoan

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil diren Jose Antonio Arana Martija euskaltzain osoaren, Vahan Sarkisian eta Xabier Gereño euskaltzain ohorezkoen eta Fernando Mendizabal euskaltzain urgazlearen hilberri-txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Ohorezko euskaltzainak: Karmele Rotaetxe eta Joseba Intxausti.

Euskaltzain urgazleak: Jazinto Iturbe, Patxi Galé, Sebas Gartzia Trujillo, Jabier Kaltzakorta, Manu Ruiz Urrestarazu, Rikardo Badiola, Pruden Gartzia eta Juan Luis Goikoetxea.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindikoko langileak: Amaia Okariz eta Josune Olabarria.

Jose Antonio Martija, Xabier Gereño eta Fernando Mendizabalen hainbat senide.

*Euskera*. 2012, 57, 1-2. 169-257. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Andres Urrutia euskaltzainburuak hurreratu diren guztiei ongi etorria eman die, bereziki gaurko ekitaldian gogoan hartuko diren euskaltzainen senideei. Ondoren, ekitaldiaren nondik norakoa aurkeztu du. Era berean, aurreko urtean hil diren euskaltzainak gogoan hartu ditu, eta, bakoitzak bere arloan edota euskararen mesedetan egindako ekarpenak zein merezimenduak nabarmendu ditu.

Ondoko hilberri-txostenak irakurri dira:

- Vahan Sarkisian (1954-2011) ohorezko euskaltzaina. Xabier Kintanak irakurri du.
- Fernando Mendizabal (1934-2011) euskaltzain urgazlea. Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak irakurri du.
- Xabier Gereño (1924-2011) ohorezko euskaltzaina. Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana euskaltzain osoek txosten bana irakurri dute.
- Jose Antonio Arana Martija (1931-2011) euskaltzain emeritua. Jose Luis Lizundia eta Joan Mari Torrealdai euskaltzainek eta Begoña Arana Jose Antonio Aranaren arrebak txosten bana irakurri dute.

Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak hitza hartu du eta Vahan Sarkisian euskaltzain ohorezkoari buruz idatzi duen hilberri-txostena irakurri du.

Vahan Sarkisian armeniar idazle, irakasle eta itzultzaileak utzitako lan mardularen baitan, euskarari eta euskal kulturari eskainitakoak oso kontuan hartzekoak direlakoan da Xabier Kintana. Izan ere, «bai armenologian eta bai euskalaritzan ere ibilbide erabat berriak proposatu zituen, jada onespena lortu eta zientzialarien aitortpen handia eskuratu dutenak».

Ondoren, Fernando Mendizabal euskaltzain urgazleari buruzko hilberri-txostena irakurtzeko, Joseba Intxausti euskaltzain ohorezkoak hitza hartu du. Azken honek, Fernando Mendizabalen bizitzaren unerik adierazgarrienak ekarri ditu gogora. Apaiz garaian, Arantzazun eta Foruan irakasle aritutako garaia, batetik, euskararen irakaskuntza egokitzen jardun zueneko; eta Alemaniako Werl-eko santutegiko egonaldia; eta bestetik, antropologiaren ezagutzan sakontzeko aukera eman ziona. Handik itzultzean, UZEIren itzalean, euskal lan-aldirik luzeena burutu zuen, Intxaustiren aburuz, terminologia, hizkera juridikoa edota itzulpengintza langai izan zituela. Horrez gainera, lan ugari utzi dizkigu, erlijioaz, hiztegegintzaz zein arlo humanistikoaz

Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana aritu dira Xabier Gereño zenaz.

X. Gereñok Euskaltzaindian egindako lana jorratu du J. L. Lizundiak. Hala, Era-kundearen kontabilitatea antolatu zuela gogoan izan du, eta «euskaraz prestatu

zuen, berak sortutako eredia Euskaltzainditik kanpo ere, askorentzat balio handia izan zelarik». Gauza ugari egin zuen Euskaltzaindian: Ekonomia batzordeko kide izan zen, Euskaltzaindiaren argitalpenen inbentario zehatza egin zuen –1984an–, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan Euskaltzaindiak ipintzen zuen erakustokiaren ardura ekonomikoa eraman zuen... gainera, «eginkizun akademiko ugari-tan parte hartu zuen, hala nola, 1972an, Filateli Hiztegia, 1972ko urtarrileko batzarrean, Euskaltzaindiari proposatua; Euskalarien Harremanak batzorde suntsikorrean; 1968an, Arantzazun eta, 1978an, Bergaran egindako bi biltzar famatuetan ere izan zen partaide; 1980an eta hurrengo urtean; Loiolan, 1981ean, egindako Euskaltzaindiaren II. Barne Jardunaldietan; Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespeko, Toribio Altzaga epaimahai zereginetan; Euskaltzaindiaren aginduz Xabier Kintanak prestatutako Merkatalgo Izendegian ere lagundu zuen, 1982-84an; hilberri-txosten hauek ere idatzi zituen: Xabier Peña, euskaltzain urgazlea (1981), Julita Berrojalbiz, ohorezko euskaltzaina (1999)».

Bestalde, batere xamurrak ez ziren garaietan, Xabier Gereñok euskararen alde egindako lana eskertu nahi izan du Xabier Kintanak. Bere esanetan «begi zorrotza zuen gure hizkuntzaren funtsezko premiez konturatzeko». Are gehiago, haren eskutik, «alfabetatu gabeko euskaldun zaharrek eta esperientzia gabeko berriek lehen pausuak eman zituzten euskara landuz eta aberastuz». Euskara ikasteko metodoak eta gaurkotasuna irizpide zuten 70etik gora nobela utzi dizkigu, «jendeari eskatzen zuena ematearren sortu zituenak».

Jose Antonio Arana Martijaren omenez hiru pertsona mintzatu dira: Jose Luis Lizundia eta Joan Mari Torrealdai euskaltzainak eta Begoña Arana, Jose Antonioren arreba.

«Jose Antonio Arana eta Euskaltzaindia» izenburuko txostenean, Jose Luis Lizundiak iazko apirilean zendu zen euskaltzain osoak akademiarekin izandako lotura estua azpimarratu nahi izan du. Azkue Bibliotekaren eta diruzaintza ataleko arduratik, erakundearen modernizazioan eta hedapenean esku-hartze zuzena izan du. Beste arlotan egindako lana ere aitortu dio, «ekintza, ikerketa, eta abar; kulturgingintza, euskalgintza nahiz herrigintza izan ziren Jose Antonioren goiburu eta helburu, kasu honetan, Euskal Akademian». Euskal kulturaren esparru anitz landu dituztenen belaunaldi handi baten partaide.

47 urtez, 1978an hasi zen Arana profesionalki bibliotekan, Azkuen zehazki, eta Joan Mari Torrealdai esan duenez, «Jose Antonio Arana da Azkue Bibliotekaren sortzaile nagusia. Izenetik hasita izanera. Izenaren proposamena berea izan zen.



2.500 erregistroekin aurkitu zuen liburutegi hura 64.000 liburutara eraman zuen». Tarte horretan, plangintza sistematikoa antolatu, funts inportanteak eskuratu, eta eredu zko katalogazioa osatu zuen. Testuinguru horretan, Aranaren lanaren beste esparru bi nabarmendu daitezke. Bata, Euskal Herriko Biblioteka Nazionalaren aldeko bere konpromisoa. Eta bigarrena, bio-bibliografia jeneroaren lanketa.

Begoña Aranak haurtzaroko pasadizo batzuk kontatu ditu, eta batez ere nebaren musikarekiko maitasuna izan du hizpide. Euskal musikari garrantzitsuenen kantutegi handiak landu zituela ekarri du gogora –euskal opera, euskal musika profano zein erlijiosoa, egungo konpositore handiak, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, M<sup>a</sup> Luisa Ozaita, Sabin Salaberri, Jesus M<sup>a</sup> Sagama, Rafael de Castro, Jose Luis Ansorena, Jabier Bello Portu, Joakin Pildain, Francisco Escudero...-. Francisco Escuderoaren Gernika operarako Gernikako kanpaien grabazioa eskatu ziola ere jakinarazi du: «Geroago, 1987an Arriagan estreinatu zen operan entzungo ziren kanpai haiek». Lizeoan antzezlanak zirela, zartzuelak zirela, koruen emanaldiak edota marijesiak zirela, «hau zen Jose Antonio. Beti, herrian ospatzen zen guztian parte hartuz».

Ekitaldiaren amaieran, musika izan dute lagun bertaratutakoek. Aita Donostia, Aita Madina, Henry Purcell, Gluck eta Pablo Sorozabalen obra batzuk interpretatu dituzte Itxaso Aranak, Irene Ojangurennek, Itxaso Aristizabalek, Esther Barandiaranek eta Ian Swedlundek.

Horrez gainera, Joseba Sarrionandiaren *Brisa banintz* eta *Sehaska gutuma* poemak –Begoña Aranak musikatuak– eta Jose Antonio Arana Martijaren *Gure amari* bertsoa entzuteko aukera ere izan da.

Euskaltzainburuak ekitaldiari amaiera eman dio, iaz joan zirenek utzi zigutena azpimarratuz eta eskertuz.

Eta besterik ez dela, Ageriko bilkura bukatutzat eman da, arratsaldeko 14:20 direnean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria